

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Elgea mendilerroaren hegoaldeko larreen eta luberrien aprobetxamenduaren lizitazioa

Osoko Bilkurak 2025eko abuztuaren 27an egindako ohiko bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorritik, iragarki honen bidez prozedura irekiaren deialdia egiten da, Elgea mendilerroaren hegoaldeko larreen eta luberrien aprobetxamendua esleitzeko eskaintza ekonomiko onuragarriari erantzunez, hainbat esleipen-irizpiderekin, honako datu hauen arabera:

1. Erakunde esleitzaila: Arratzua-Ubarrundiako Udala, Uribea kalea 12. 01520 Durana, telefonoa: 945 299516, posta elektronikoa: arratzua@ayto.araba.eus. Kontratatzailaren profilaren internet-helbidea: <https://arratzua-ubarrundia.eus/eu/udala/kontratatzailaren-profila>.

2. Kontratuaren helburua: Elgea mendilerroaren hegoaldeko larreen eta luberrien aprobetxamendua.

3. Izapidetza eta prozedura: ohiko izapidetza, prozedura irekia, eskaintza ekonomiko onuragarria, hainbat esleipen-irizpide:

1) Prezioa: 50 puntu.

Eskaintza ekonomikoa gehienez 50 puntutan baloratuko da. Gehieneko puntuazioa (50 puntu) eskaintza ekonomiko handienari emango zaio, eta gainerakoei modu proportzionalan, kalkulatzeko erreferentziatutako hartuta lizitazio-kanonari dagokionez erakunde lizitatzailaiek eskainitako prezioaren goranzko zenbatekoak.

2) Jarduera nagusia ustategia izatea: 25 puntu.

Jarduera nagusia ustategia duen abeltzaina dela egiaztatzen badu, gehieneko puntuazioa emango zaio. Hori egiaztatzen ez bada, lortutako puntuazioa zero izango da.

3) Pertsona fisikoaren bizilekua, edo bizilekuaren gertutasuna, edo pertsona juridikoaren egoitza edo egoitzaren gertutasuna, mendien titular diren hiru udalerrietako edozeinetan: 20 puntu.

Bizilekua ez bada hiru udalerrietako batean ere, puntuazioa ondorengo moduan emango zaio:

— Udalerrietatik kanpora bizi direnak, baina hiru udalerrietako edozeinetatik 10 km-ko distantziara daudenak: 10 puntu.

— Udalerrietatik kanpora bizi direnak, hiru udalerrietako edozeinetatik 10km-tik gorako eta 20km-tik beherako distantziara daudenak: 5 puntu.

— Udalerrietatik kanpora bizi direnak, hiru udalerrietako edozeinetatik 20 km-ko distantziara daudenak: 3 puntu.

4) Abeltzain gaztea izatea: 5 puntu.

4. Kontratuaren urteko prezioa, gorantz hobetu ahal izango dena:

Lote 1: 4.778,74 euro.

Lote 2: 8.886.03 euro.

Lote 3: 7.485,64 euro.

5. Eskatutako bermeak: Esleipen-prezioaren ehuneko 5, kontratuaren aldi osorako.

6. Eskaintzak edo parte-hartzeko eskaerak aurkeztea: Arratzua-Ubarrundiako Udalean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik hasi eta hamabosgarren eguneko 14:00ak arte. Pertsona edo erakunde esleitzailleak bere eskaintza mantendu beharko du, kontratua esleitu arte.

7. Eskaintzak irekitzea: eskaintzak aurkezteko epea bukatzen denetik hirugarren egun balioduneko 13:30 arte.

8. Publizitate-gastuak: Pertsona edo erakunde esleipendunaren kontura.

Duranan, 2025eko irailaren 4an

Alkatea

MARÍA BLANCA ANTÉPARA URIBE